

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1316

*555/2026 EBAZPENA, martxoaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 554/2026 Ebazpenaren bidez txanda irekiko destinoak esleitu zitzairen pertsonen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrari laguntzaile kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko EPEetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenaren bidez aldatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak irailaren 26an emandako 415/2024 Epaia betetzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1838/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoko administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaile kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan. Hainbat ebazpenetako hutsak zuzentzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 3ko 55/2023 Ebazpenaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenaren bidez, ebazpen hori aldatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak irailaren 26an emandako 415/2024 Epaia betetzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 22ko 410/2025 Ebazpenaren bidez agindu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitara zedin oposizioko fasea gainditu duten txanda irekiko izangaien behin-behineko zerrenda, azken puntuazioaren arabera ordenatuta, lehiaketa- eta oposizio-faseko puntuazioak bereizirik adierazita (2020-2021-2022ko EPEa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaile kategoriako estatutupeko langile bihurtzeari dagokionez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 21eko 1292/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin zen 2020-2021-2022ko EPEko txanda irekiaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena administrari laguntzaile kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 13ko 554/2026 Ebazpenaren bidez (esleipenak egitekoa), aurreko paragrafoan adierazitako ebazpena aldatzen da, izan ere, desgaitasun-kupoko (bestelako desgaitasunak) izangaiek jarritako gora jotzeko errekurtsuak baietsi direnez, izangai horiek destino-esleipendun izan behar dute, lortutako puntuazio-ordenari jarraituz eta haiek egindako destino-aukeraketa errespetatuz.

Horiek guztiak horrela, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalme-nez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAn argitaratzeko agintzea Ebazpen honen eranskinean agertzen diren pertsonak estatutupeko langile finko izendatu direla administrari laguntzaile kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko dute destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiek hitzordua eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatueta nazionalentzat.

– Diziiplina-espediente bidez izangaia Administrazio Publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako desgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa, eta, horrez gain, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Ezarritako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta, kategoriara / lanpostu funtzionalera sartzeko betebeharren bat betetzen ez dutela antzematen den kasuan, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira euren jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko. Era berean, interesdunei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira epe barruan aurkezten ez badira edo, hala badagokie, emandako luzapenean aurkezten ez badira, hautaketa-proben ebazpenetik eratorritako eskubideak galduko dituztela. Azaldutakoaren arabera, lanpostuaz jabetzen diren izangaiek dagokien zerbitzu sanitarioetako erakundean hasi beharko dira lanean, eginbidea bete eta hurrengo egunean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

2026ko martxoaren 25a, asteazkena

ERANSKINA  
2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO  
DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA  
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA  
TXANDA IREKIA – LEHIAKETA-OPOSIZIOKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Esleitutako destinoa	Hizkuntz eskakizuna / Derrigorrezko data
***6587**	Ortiz Uribarri, Maria Ines	Bilbao- Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta- Lehen Mailako Arreta/ Indautxuko Osasun Z- Bilbao / Lehen Mailako Arretako unitateak- Bezeroentzako arreta eremua- Bezeroentzako arreta eremua / 2 Txanda- 2 Txanda Go/A Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2011-06-01
***5157**	Estankona Uriel, Nerea	Barrualde-Galdakao ESI / Lehen Mailako Arreta- Lehen Mailako Arreta / Usansoloko Kontsultategia-Galdakao/ Lehen Mailako Arretako unitateak Bezeroentzako arreta eremua- Bezeroentzako Arreta Eremua/ Goizez- Goizez 8:00-15:00 – Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2011-06-30
***8701**	Benavente Vicente, Micaela	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta/ Donostiako U. Ospitalea- Donostia / San Sebastián / Informazio Unitatea- Telefonogunea- Telefonogunea / Goizez- Goizez 8:00-15:00 Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2021-09-01
***7578**	Herrero Perez, Alejandra	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Egitura orokorrak / Arab. U. Ospitalea- Santiago- Vitoria-Gasteiz/ Kanpo Kontsult Eraik. Vitoria-Gasteiz/ Arab. U. Ospitalea- Txagorritxu- Vitoria-Gasteiz / Kudeaketa Sanitarioa Kanpo-kontsultak/ Proba osagarriak- kanpo-kontsultak / Proba osagarriak / Goizez- Goizez 8:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2013-12-03
***4616**	Perez Arenas, Iciar	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta- Lehen Mailako Arreta/ Santutxu Solokoetxeke Osasun Z- Bilbao / Lehen Mailako Arretako unitateak Bezeroentzako arreta eremua- Bezeroentzako Arreta Eremua / 2 Txanda- 2 Txanda Go/A- Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2021-02-01
***9538**	Encinas Gaitero, Aitor	Donostialdeko ESI / Lehen Mailako Arreta- Lehen Mailako Arreta/ Lasarteko Osasun Z- Lasarte- Oria / Lehen Mailako Arretako unitateak- Bezeroentzako arreta eremua- Bezeroentzako Arreta Eremua / Arratsalde- Arratsaldez eta agenda irekia goizez- Espezifikotasun gehiagorik gabe	2 2010-06-01